



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko irailaren 23a

93. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsoneri laguntza eta babesa emateari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita NUPen Medikuntzako ikasketak ezartzeko elkarrizketak abiaraz ditzan. Hezkuntza Batzordeak bazter utzia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuan Nafarroan lan egiten duten pertsoneri 2008an eta 2009an eskainitako ikastaroeri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsonen laguntza eta babesa emateari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikulua ezarritakoa betez, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kaltetutako pertsonen laguntza eta babesa emateari buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezkeen agintzen da. Foru Lege proposamena 2009ko maiatzaren 6ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko irailaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da laguntza- eta onura-neurriak ezartzea 2009ko otsaileko uholdeek eta ekainaren 30eko txingor ekaitzak –nagusiki Valdegako dermioetan eta Metautengo bailaran, eta Allingo eta Ameskoako eskualdeetan–, bai eta hurrengo urteetan Nafarroako Foru Komunitatean antzeko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kaltetuta izan litezkeen pertsona fisiko nahiz juridikoentzat”

Zioak: Legearen osotasunean sartzea ekainaren 30eko txingor ekaitzari aurre egiteko beharra. Ekaitz horren eragin nagusia Valdegako dermioetan eta Metautengo bailaran izan zen, bai eta Allingo eta Ameskoako eskualdeetan ere. Nafarroako iparraldean otsailean gertaturiko uholdeak aipatzen direnez –horrexek eragin zuen Nafarroa Bairen foru lege proposamena, zeinak azkenean

berarekin ekarri baitzen PSNk lege proposamen hau aurkeztea–, gure ustez ekaineko txingor ekaitza ere, lege honetan sartu behar da, aparteko izaeraz bada ere.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztzea proposatzen da:

“1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitatean kalte handiak eragiten dituzten hondamendi naturalek kaltetutako pertsonen, toki entitateen eta ureztatzaileen erkidegoen aldeko laguntzen multzo bat ezartzea”

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztzea proposatzen da:

“2. artikulua. Hondamendi naturalaren definizioa.

Foru lege honen ondorioetarako babesa eman beharreko hondamendi natural bat gertatu dela joko da honako inguruabarretako bat gertatzen denean:

a) Euri jasek eragindako kalteen kasuan:

Baldin eta orduko gehieneko prezipitazioa, edo bestela 24 ordutako gehieneko prezipitazioa edo hileko gehieneko prezipitazioa, 10 urteko aldi bati dagokiona baino handiagoa bada.

a) Haizeak eragindako kalteen kasuan:

Baldin eta haize-bolada gehienekoek orduko 120 km-ko abiadura gainditzen badute.

c) Uholdeek eragindako kalteen kasuan:

Uholdeek arroko plangintza hidrologikoan mugaturiko lehentasunezko fluxuaren eremutik kanpo eragindako kalteek 500.000 euro baino gehiagokoak izan beharko dute, kaltetutako udalerrri guztiak hartuta.

d) Gainerako hondamendietan

Haien aparteko izaera justifikatu beharko da, eta kaltetutako udalerrien multzorako Gobernuak baloratutako kalteek 500.000 euro baino gehiagokoak izan beharko dute”

4. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“3. artikulua. Epeak

Aipatu foru agindua emanen da hondamendia gertatu eta hilabeteko epean, eta bertan jasoko dira, halaber, foru lege honetan aurreikusitako laguntzen eta/edo kalte-ordainen eskaerak aurkezteko epeak, betekizunak eta baldintzak. Foru lege honetatik at geratuko da 2009ko otsailean izandako uholdeei eta ekainaren 30eko txingor ekaitzari –nagusiki Valdegako dermioetan eta Metautengo bailaran, eta Allingo eta Ameskoako eskualdeetan– aurre egiteko arautzen diren laguntzei, baldintzei eta betekizunei dagokien foru agindua, zeina eman beharko baita foru lege hau onetsi eta hila-beteko epean”

Zioak: Legearen osotasunean sartzeari ekainaren 30eko txingor ekaitzari aurre egiteko beharra. Ekaitz horren eragin nagusia Valdegako dermioetan eta Metautengo bailaran izan zen, bai eta Allingo eta Ameskoako eskualdeetan ere. Iparraldean otsailean gertaturiko uholdeak aipatzen direnez –horrexek eragin zuen Nafarroa Bairen foru lege proposamena, zeinak azkenean berarekin ekarri baitzuen PSNk lege proposamen hau aurkeztea–, gure ustez ekaineko txingor ekaitza ere, lege

honetan sartu behar da, aparteko izaeraz bada ere.

5. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztea proposatzen da:

“3. artikulua. Onuradunak.

Honakoak izanen dira laguntzen onuradunak: Nafarroako Gobernuaren kasuko erabakiaren bidez mugaturiko esparru geografikoan gertaturiko hondamendi naturalek kaltetutako pertsonak, toki entitateak eta ureztatzaileen erkidegoak. Erabaki horretan, izan ere, hondamendi-inguruabar hori gertatu deneko udal dermioak jasoko dira.

Horretarako, toki entitateek eta ureztatzaileen erkidegoak, baldin eta haien eragin-esparruak udalerrri batekoa gainditzen baldin badu, kaltetutakotzat joko dira aipatu erabakian sarturiko dermioen arabera dagokien zatian”

6. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“4. artikulua. Laguntzen izaera.

Hondamendiak kaltetutako higiezinaren titularrak, bigarren artikuluan aipatu udalerritakoak izanez gero, salbuesirik egonen dira hondamendia gertatu den urteko lurraldearen gaineko kontribuziotik. Salbuespen gisa, kontuan hartuko dira 2009ko otsaileko uholdeen ondorioz eta ekainaren 30eko txingor ekaitzaren ondorioz –ekaitz horren eragin nagusia Valdegako dermioetan eta Metautengo bailaran izan zen, bai eta Allingo eta Ameskoako eskualdeetan ere– kalteak jasan zituzten udalerriak”

Zioak: Legearen osotasunean sartzeari ekainaren 30eko txingor ekaitzari aurre egiteko beharra. Ekaitz horren eragin nagusia Valdegako dermioetan eta Metautengo bailaran izan zen, bai eta Allingo eta Ameskoako eskualdeetan ere. Nafarroako iparraldean otsailean gertaturiko uholdeak aipatzen direnez –horrexek eragin zuen Nafarroa Bairen foru lege proposamena, zeinak azkenean

berarekin ekarri baitzen PSNk lege proposamen hau aurkeztea-, gure ustez ekaineko txingor ekaitza ere, lege honetan sartu behar da, aparteko izaeraz bada ere.

7. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordezteko proposatzen da

“4. artikulua. Tributu salbuespenak.

1. Hondamendia gertatu den urtean, kalteak jasan dituzten ondasun higiezinaren titularrak salbuesirik egonen dira 2009ko lurraldearen gaineko kontribuziotik.

Landa-izaerako ondasunak direnez gero, salbuespena aplikatzeko beharrezkoa izanen da kalteak higiezinan, edo uzta edo ganaduetan gertatu izana, eta horiek enpresa jardueraren bati atxikiak egotea..

Hiri-izaerako ondasunen kasuan, salbuespena aplikatzeko frogatu beharko da bertako pertsonak edo ondasunak, guztiak edo bakar batzuk, beste etxebizitza edo lokal batzuetara eraman behar izan direla izandako kalteak konpondu arte.

Kasua bada, salbuespenak barne hartuko ditu legeak baimendutako errekaruak.

2. Aurreko idatz-zatiko salbuespenerako esku-bidea duten eta hondamendia gertatutako ekitaldiko ordainagiriren bat ordainduta duten subjektu pasiboek pagatutako zenbatekoak itzultzeko eskatzen ahalko dute”

8. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordezteko proposatzen da:

“5. artikulua. Udalen konpentsazioa.

Foru lege honetan ezarritako tributu-salbuespenak aplikatzearen ondorioz udaletan gertatzen den diru-sarreraren murriztea konpentsatzen ahalko da uztailaren 15eko 22/2000 Foru Dekretuan arau-

tutako prozedurari jarraikiz, eta Nafarroako aurrekontu orokorretan horretarako dagoen kontusailaren kargura ordainduko da”

9. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordezteko proposatzen da:

“6. artikulua. Toki entitateentzako eta ureztatzailen erkidegoentzako laguntzak.

Hondamendi egoeren ondorioz beren ekipamenduan eta azpiegituretan kalteak pairatzen dituzten toki entitateek eta ureztatzailen erkidegoek haiek konpontzeko edo berriro jartzeko laguntzak jasoko dituzte. Eman beharreko laguntzek ezin izanen dituzte gainditu ondoren aipatzen diren ehunekoak, gaiaren arloko departamentu eskudunak baloraturiko kalteen zenbateko osoari dagokionez:

a) % 90, kalteen zenbatekoak onuradunaren urteko aurrekontuaren % 50 gainditzen duenean.

a) % 45, kalteen zenbatekoak onuradunaren urteko aurrekontuaren % 25 gainditzen duenean.

c) % 20, kalteen zenbatekoak onuradunaren urteko aurrekontuaren % 10 gainditzen duenean”

10. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordezteko proposatzen da:

“7. artikulua. Prozedura.

Kaltetutako toki entitateek eta ureztatzailen erkidegoek Nafarroako gobernuko departamentu eskuduneari aurkeztu beharko dituzte beren eskabideak, foru lege honetako 3. artikuluan aipatzen den erabakian horretako ezartzen dituen irizpideen arabera, eta honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

a) Kasuko gobernu-organismoaren erabakia, laguntza eskatzeari buruzkoa.

b) Idazkariak eginiko ziurtagiria, kaltetutako ondasunaren izaera egiaztatzen duena.

c) Egin beharreko lanen oroitidazkia eta konponketaren obra-unitateen balorazioa, teknikari eskudunak eginikoak. Haiekin batera, kokapenari buruzko planoak. Behar izanez gero, eskatzaileari aurreproiektu edo proiektu teknikoa aurkezteko eskatu ahalko zaio, betiere kalteen tamainaren arabera.”

11. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztea proposatzen da:

“8. artikulua. Kalteen balorazioa.

Behin eskatutako dokumentazioa osatu denean, departamentu eskuduneko zerbitzu teknikoek egiaztatuko dute konponketa eskatzen deneko kalteak babesa jasotzeko modukoak direla, eremuen eta kalteen mugatzeari buruzko erabakiaren arabera. Halaber, kalteen balioa finkatuko dute, egingdako egiaztapenen arabera.”

12. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

9. artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona artikuluen berriaren testua:

“9. artikulua. Ebazpena.

Departamentu eskudunak, behin laguntzak gertaturiko kalteetarako egokiak direla egiaztatu ondoren, eskabidea ebatziko du, eta kasua bada, eman daitekeen gehieneko laguntza aitortuko du.”

13. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

10. artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona artikuluen berriaren testua:

“10. artikulua. Ordainketa.

Laguntzaren ordainketa egingen da behin berriro jartzeko obrak eta lanak bukatu ondoren. Lan horiei buruzko behar bezalako ziurtagiria egingen da, eta departamentu eskuduneko zerbitzu teknikoek haien exekuzio zuzena egiaztatuko dute.”

14. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

11. artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona artikuluen berriaren testua:

“11. artikulua. Aurrekontu-beharrizanak.

Aurrekontu-beharrizanak betetzeko, Nafarroako Gobernuak behar diren kreditu bereziak edo/eta kreditu-gehiarriak izapidetuko ditu, foru legeetan ezarritakoaren arabera.”

15. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

12. artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona artikuluen berriaren testua:

“12. artikulua. Kreditu eragiketak

Hondamendi egoerek eragindako kalteak direla-eta azpiegiturak eta ekipamenduak konpondu edo berriro jartzeko obren finantzaziorako kreditu eragiketarako, foru lege honek ukitutakoek ez dute beharko Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 130. artikuluan aipatzen den baimena.”

16. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

13. artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona artikuluen berriaren testua:

“13. artikulua. Presako egoera oso larriak

Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 73.1.c) artikuluan agindutako ondorioetarako, presako egoera oso larritzat hartuko da eta alde zuzeneko publikitate gabe ko prozedura negoziatua erabiltzen ahalko da, kalte gutxiago eragotzeko eta ureztatzailerentzako erabileren azpiegitura eta ekipamenduak konpondu edo berriro jartzeko obren, horniduren eta laguntzen kontratazioa egiteko.”

17. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Lehenengo, bigarren eta hirugarren xedapen gehigarriak aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen duen xedapen gehigarri bakarrarekin ordeztuko dira:

“Xedapen gehigarri bakarra. Laguntzen izaera osagarria eta subsidiarioa.

Foru lege honetan ezarritako laguntzak ondo koen osagarriak eta subsidiarioak izanen dira beti, eta hurrenkera honetan: sinatutako aseguru polizen konpentsazioak, bai eta Estatuan edo Europar Batasunean halako egoerentarako izan daitezkeen laguntzak ere.

Horretarako, onuradunek polizen titularrak diren aseguru-etxeetan izapidetu beharko dituzte konpentsazioak, eta, modurik badago, kasu kasuko laguntzak eskatu ahalko dituzte Estatuko edo Europar Batasuneko administrazioetan.”

18. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor bakar bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen iragankor bakarra.

Honakoak izanen dira laguntzaren xedea: Nafarroako Foru Komunitatean 2009ko otsailean izaniko uholdeek ukitutako partikularrak, toki entitateak eta ureztatzailerentzako erkidegoak, foru lege honetan jasotako zenbateko, baldintza eta prozeduren arabera.

Xedapen hau aplikatzearen ondoriozko aurrekontu-beharrizanak betetzeko, kreditu berezi bat ezarriko da.”

19. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan lehenengoa gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Azken xedapenetan lehena. Garatzeko baimena.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.”

20. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan bigarrena gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.”

21. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluari beste letra bat gehitzeko zuzenketa. Ekipamendu eta azpiegiturretan izaniko kalteen konpentsazioa.

“Nolanahi ere, konpentsazioa ezin izanen da izan sekula kalteak konpontzeko kostuaren % 100 baino txikiagoa.

Zioak: Gure ustez, lege honek gertaturiko kalte guztien estaldura bermatu beharko du, aurreko beste kasu batzuetan egin den bezala.

22. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko bigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du:

Beraz, ohikoa da administrazio publikoek, dituzten eskumenen arabera, erantzunak eta laguntzak ematea, eragindako kalteak konpontzeko. Kontuan hartuta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean ezarritakoa legezko erreserbari eta toki entitateei konpentsatzeko formulari buruz, egokitzat jotzen da zehaztea, foru lege baten bidez, formula homogeneo bat, zehaztuko duena nola lagundu behar zaien aipatu udalerriei kalteak eragiten dituen hondamendi bat gertatuz gero, bai salbuespen fiskalen bidez, bai horretarako eta gertatzen diren kasu guztietarako baliagarritzat jotzen diren bestelako formulen bidez”.

Zioak: Eragindako kalteak “neurri batean behintzat” konpontzeari buruz lerrokada horretan egiten den aipamena kendu behar dela uste dugu, zeren eta gure ustez egokia da eragindako arazo guztiak konpondu nahi izatea legearen bidez.

23. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko hirugarren lerrokada aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du:

“Horrenbestez, foru lege honek denboran irautea nahi da eta haren indarraldia mugagabea izatea, baina, halaber, eta atzeraeraginez, kontuan hartu nahi ditu eta bere baitan jaso 2009ko otsailan gertaturiko uholdeek eta ekainaren 30eko txingor ekaitzak –nagusiki Valdegako dermioetan eta Metautengo bailaran, eta Allingo eta Ameskoako eskualdeetan izan zuen eragina– ukitutako udalderriak”.

Zioak: Legearen osotasunean sartzea ekainaren 30eko txingor ekaitzari aurre egiteko beharra. Ekaitz horren eragin nagusia Valdegako dermioetan eta Metautengo bailaran izan zen, bai eta Allingo eta Ameskoako eskualdeetan ere. Nafarroako iparraldean otsailan gertaturiko uholdeak aipatzen direnez –horrexek eragin zuen Nafarroa Bairen foru lege proposamena, zeinak azkenean berarekin ekarri baitzen PSNk lege proposamen hau aurkeztea–, gure ustez ekaineko txingor ekaitza ere, lege honetan sartu behar da, aparteko izaeraz bada ere.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita NUPen Medikuntzako ikasketak ezartzeko elkarrizketak abiaraz ditzan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita NUPen Medikuntzako ikasketak ezartzeko elkarrizketak abiaraz ditzan"

Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeak 2009ko irailaren 17an egindako bileran, erabaki zuen aur-

keztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko irailaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuan Nafarroan lan egiten duten pertsonen 2008an eta 2009an eskaintako ikastaroen buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuan Nafarroan lan egiten duten pertsonen 2008an eta 2009an eskaintako ikastaroen buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 9ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko uztailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuan Nafarroan lan egiten duten pertsonen 2008an eta 2009an eskaintako ikastaroen buruz (PES-184). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Dokumentu bat erantsi dugu eskatutako informazioarekin. Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak (NAPI) prestatu du, bera baita eskaintza programatzeaz arduratzen dena.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2009ko ekainaren 30ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

INFORMAZIO OROKORRA

Deialdi bakoitzean, informazio zehatz eta xehakatu bidaltzen diogu Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkariaren prestakuntza zerbitzuei eta euskara eta Europako hizkuntzak ikasteko zerbitzuei buruz, funtsean Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkariaren prestakuntza-arduradunaren bitartez.

Erabilitako bitartekoei dagokienez, berriz, posta arruntaren bidez informazio-liburuxka batzuk bidali ohi ditugu, eta posta elektronikoa erabiltzen da erakunde horretatik langile guztiei prestakuntza-eskaintzaren berri zabaltzeko.

Ikastaroen eskaintzari eta matrikularako epeei buruzko informazioa ematen da. Halaber, kontaktu bat eskaintzen da zalantzetarako edo argitasunak emateko, eta webgunearen berri ere ematen da. Izan ere, haren bidez izen-emateak izapidetzen ahal dira, eta informazio guztia egunero-egunero gaurkotzen da. Gainera, deialdiak berariaz jasotzea eskatzen den kasuetan, informazioa bidatzen zaie Administrazio Orokorraren menpeko beste unitate batzuei; esate baterako Nafarroako Trafiko-Probintziako Buruzagitzara.

A. PRESTAKUNTZA ZERBITZUA

1.1 2008ko eskaintza orokorreko bertaratzeko ikastaroak

ZUZENDARITZA ETA GERENTZIA PUBLIKOAREN ARLOA

1. Zuzendaritzarako trebetasunak hobetuz: egiteko modu berria
2. Adimen emozionala zuzendaritza eginkizunean
3. Adimen emozionala zuzendaritza eginkizunean
4. Erabakiak hartzea
5. Coachinga eta feedbacka Administrazio Publikoan: pertsonak gidatzea
6. Bilera eraginkorrak zuzentzea
7. Bilera eraginkorrak zuzentzea
8. Administrazio Publikoko ekipoen lidergoa

9. Administrazio Publikoko ekipoen lidergoa
10. Lanerako ekipoak zuzentzeko teknika aktiboak
11. Sormenerako eta ideiak sortzeko tailerra. Adimen mapak
12. Zuzendaritza- eta aginte-erantzukizunak dituzten pertsonen berezko estresa
13. Zuzendaritza- eta aginte-erantzukizunak dituzten pertsonen berezko estresa
14. A.I.K.: Kalitaterako aginte integraleko koadroa (balanced score card)
15. Zerbitzu publikoetan kalitatea zuzentzea
16. Zerbitzu publikoetan kalitatea zuzentzea
17. Barneko komunikazioa garatzea unitateetan
18. Hirugarrenekin negoziatzea, ekipoan
19. Estilo soziala: izaera eta nortasuna
20. Jarrera hobetzea: ekipoak estimulatzeko eta motibatuzeko teknikak
21. Zerbitzuen zorro bat nola egin
22. Telefonoan ematen den denbora ekonomizatu eta kudeatzea, zuzendari eta nagusientzat
23. Asertibotasunerako teknikak, burutzentzat
24. Asertibotasunerako teknikak, burutzentzat
25. Komunikazioaren magia
26. Zerbitzu publikoaren etika
27. Plangintzarako teknikak: helburuak, adierazleak eta emaitzen ebaluazioa
28. AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) matrizeak, taktikak eta estrategiak egitea
29. Marketing publiko aplikatuaren oinarritzko kontzeptuak
30. Zurrumurruaren tratamendua eta kudeaketa

ARLO TEKNIKOA ETA INSTRUMENTALA

1. Nola garatu Administrazio Publikoan autoebaluazio bat, EFQM ereduaren arabera (Bikaintasuna erdiesteko konpromisoa: 200 puntu baino gehiago)
2. Kalitatea administrazio publikoetan kudeatzeko tresna teknikoak
3. Prozesuen kudeaketa Administrazio Publikoan: definizioa, adierazleak eta helburuak
4. Erabateko Kalitateari buruzko tailerra. bikaintasunaren eredu europarraren hastapenak (EFQM)
5. Erabateko Kalitateari buruzko tailerra. CAF bikaintasun-eredua administrazio publikoentzat
6. Kalitatearen ikuspegia zerbitzu publikoetan
7. Kalitatearen kudeatzeko sistemak: ISO 9001/2000 araua
8. Zerbitzu publikoen ebaluazioa: kalitatearen adierazleak

9. Administrazio publikoetako antolamendua, ordena, estandarizazioa eta garbitasuna lortzeari buruzko tailerra ("5S" metodologia)
10. Estatistikaren oinarritzko metodologia
11. Estatistikaren metodologia. Maila aurreratua
12. Estatistikaren oinarritzko metodologia
13. Proiektuak diseinatu eta garatzea + MS-Project-2003
14. Lehentasun anitzen kudeaketa
15. Norberaren lana antolatzea. Denboraren kudeaketa
16. Norberaren lana antolatzea. Denboraren kudeaketa
17. Nafarroako lurralde-argibideetarako sistema. SITNA
18. Informazio geografikoaren hastapenak
19. Bulegoko artxiboak: administrazio-dokumentazio aktiboaren trataera eta antolamendua
20. Zuzendaritzako idazkaritzak eta protokolo instituzionalak dituzten eskumenen gauzatzea
21. Nola idatzi bileretako aktak eta laburpenak
22. Jardueren eta kudeaketan oroitidazkiak prestatzea eta idaztea
23. Eraikinen oinarritzko mantentze-lanak. I. modulu: igeltserotza eta pintura
24. Eraikinen oinarritzko mantentze-lanak. II. modulu: zurgintza eta sarrailagintza
25. Eraikinen oinarritzko mantentze-lanak. III. modulu: instalazio elektrikoak
26. Eraikinen oinarritzko mantentze-lanak. IV. modulu: iturgintza eta berokuntza
27. Administrazio publikoa eta generoko indarkeriaren azterketa

JENDEARENTZAKO INFORMAZIO ETA ARRETA ARLOA

1. Administrazio-hizkuntzaren estiloa eguneratzea
2. Zerbitzu publikoetako erabiltzaileari ematen zaion arreta eta zerbitzua hobetzea
3. Jendaurrean hitz egiteko teknikak. Oinarritzko maila.
4. Protokolo instituzionaleko teknikak
5. Zeinuen hizkuntzako ikastaroa. Oinarritzko maila
6. Zerbitzu publikoetako erabiltzaileari ematen zaion arreta eta zerbitzua hobetzea
7. Gizarte-laneko elkarrizketa
8. Txostenak eta testu tekniko-administratiboak idaztea
9. Ahozko eta idatzizko komunikazio-teknikak
10. Counselling elkarrizketa (aholkularitza)

11. Administrazio Publikoan komunikazioa eta lana hobetzeko teknikak
12. Berdintasunezko hizkuntzaren erabilera Administrazio Publikoan
13. Berdintasunezko hizkuntzaren erabilera Administrazio Publikoan (euskaraz)
14. Kexa eta erreklamazioen arreta eraginkorra
15. Zeinuen hizkuntzako ikastaroa. Maila aurreratua
16. Arreta telefonikoa hobetzea
17. Zeinuen hizkuntzako ikastaroa. Oinarrizko maila
18. Laguntza-eginkizunak dituzten langileen gaitasunen hobetzea
19. Immigrazioa eta gizarteratzea
20. Immigrazioa eta gizarteratzea
21. Kulturen arteko bitartekaritzaren hastapenak Administrazio Publikoan
22. Komunikazioa kultura anitzeko egoeratan: hobetzeko teknikak eta tresnak. I. maila
23. Herritarrenganako jokaera (euskaraz)
24. Jendaurrean hitz egitea (euskaraz)

ARLO EKONOMIKOA

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketa. A-B mailak
2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketa. C-D-E mailak
3. Oinarrizko kontabilitate orokorra
4. Oinarrizko kontabilitate orokorra
5. Ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketako kostuen eta adierazleen kontrola
6. Finantza-kontabilitate publikoa

GIZA BALIABIDEEN ARLOA

1. Erretiro aktibo baterako prestakuntza
2. Gizarte-trebetasunak lanean
3. Laneko egoera gatazkatsuetan nola moldatu
4. Gizarte-trebetasunak lanean
5. Berdintasunezko politiketarako buruzko kontzeptuak. Oinarrizko maila
6. Alderdi publikoak eta pribatuak bateratuz. Familia eta lana
7. Adimen emozionala, lantaldeetan modu eraginkorrean lan egiteko
8. Adimen emozionala, lantaldeetan modu eraginkorrean lan egiteko
9. Egoera gatazkatsuen kudeaketa positiboa gizar- eta osasun-zerbitzuetan

10. Laneko egoera gatazkatsuetan nola moldatu
